BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

4876

EBAZPENA, 2013ko urriaren 14koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak (LHIEE) antolatutako Bilboko XXXV. Hirigintza Ikastaroan (2012-2013) eta Donostiako XXXVI. Hirigintza Ikastaroan (2012-2013) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» esleitu zitzaion pertsonak uko egin diola argitara emateko dena.

Ebazpena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko irailaren 6ko Ebazpenaren bidez, Lurralde eta Hiri Ikasketetarako Euskal Eskolak antolatutako (LHIEE) Bilboko XXXV. Hirigintza Ikastaroan (2012-2013) eta Donostiako XXXVI. Hirigintza Ikastaroan (2012-2013) aurreikusten den «erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldia» esleitu zen (2013ko irailaren 23koXXXVI. Hirigintza Ikastaroko ikaslea EHAA, 181. zk.).

Donostian, XXXVI. Hirigintza Ikastaroko ikaslea izan zen Eider Goya Telletxea arkitektoari eman zitzaion praktikaldia Segurako udalean egiteko aukera.

Eider Goya Telletxeak idazki bat aurkeztu du, non esaten duen praktikaldiari uko egiten diola, lan-arrazoiak direla medio, 2013ko urriaren 12tik aurrera.

Hortaz, bada, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eider Goya Telletxeak aurkeztu duen ukoa onartzea Segurako udalean egiten ari zen erakunde edo enpresetan egin beharreko praktikaldiari dagokionean.

Bigarrena.– Segurako Udalari ukoaren berri ematea.

Hirugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko urriaren 14a,

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.